


**GOSEARI**  
**AURRE EGIN**  
**POBREZIA**  
**GUTXITZEKO**



# 1. Jarduera: **Ausartu AFRIKA ezagutzen**

Kokatu mapan herrialde bakoitza dagokion lekuan.




## Niños soldado ( Grupo Sk-p)

Fui a nacer donde no hay nada  
tras esa línea que separa el bien del mal.  
Mi tierra se llama miseria  
y no conozco la palabra libertad  
fui secuestrado en una guerra  
torturado y preparado pa matar.  
Me han convertido en una bestia  
soy sólo un niño que no tiene identidad.  
Me han obligado a disparar,  
me han enseñado cómo asesinar  
me han obligado a mutilar  
en un infierno terrenal.

EH NO, TU INDIFERENCIA NO TIENE PERDÓN  
¿QUIÉN TE ROBÓ EL CORAZÓN ?  
NO TE LEVANTES DEL SILLÓN  
EH NO, TU INDIFERENCIA NO TIENE PERDÓN  
¿QUIÉN TE ROBÓ EL CORAZÓN ?  
APAGA LA TELEVISIÓN.

Una pistola en mi cabeza  
me está obligando a asesinar a mi papá.  
Soy una máquina de guerra  
mi dedo aprieta ese gatillo sin mirar.  
Me han obligado a disparar,  
me han enseñado cómo asesinar  
me han obligado a mutilar  
en un infierno terrenal.

EH NO, TU INDIFERENCIA NO TIENE PERDÓN...



## 2. Jarduera: GOSE etengabea

### Gerrek gosea areagotzen dute

Gatazka armatuek eta, horien ondorioz, milioika pertsona lekuz aldatu beharrak eta erbesteratzeak sortzen dituzte Afrikan salatutako elikadur-larrialdien erdiak baino gehiago. Esaterako, Kongoko Errepublika Demokratikoan dagoen desnutrizio kronikoaren maila altuak biztanleen % 71ri eragiten zion 2002an. Neurri handi batean, gerra zibil luzearen ondorioa da.

Gatazkek kalte egiten diote ekonomia-jardueraren garapenari, inbertsioak murrizten dituzte eta ballabideak helburu militarretara bideratzen dituzte. Pertsona askok alde egin beharra dute, eta hirietan babesten dira, landa-lurretatik ihes egiten dute edo erreklutatu, zauritu edo hil egiten dituzte. Beraz, landetxeak uzten dira, eta horrek ondorio larriak ditu elikagaiak ekoizteko. Askotan, beldurragatik edo segurtasun faltagatik, pertsona askok ezin dituzte beren landetxeak edo abereak gobernatu. Landetxeetako azpiegiturak eta merkatuak suntsitzen dira eta ezin dira sartu erein daitekeen lurretan, minak daudelako. Segurtasun faltak mugikortasuna eta artzaintza mugatzen dute. Gatazka armatuak sortutako pobretzearen erruz, pertsona asko jarduera arriskutsu eta legez kontrakoetan sartzen dira.

Egoera horiek, batzuetan gatazkatik nahi gabe sortutako ondorioak badira ere, beste batzuetan, gerra-estrategiaren barruan egon daitezke. Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak galarazi egiten du aurkariek elikagai-biltegiei, laboreei edo abereei eraso egitea. Halaber, gobernuak eskatzen zaie biztanleria zibila babesteko gatazka armatuetan, eta laguntza humanitaria eman edo hornikuntza ahalbidetzeko erakunde inpartzialen bidez. Nolanahi ere, aurkariek batzuetan modu aktiboan parte hartzen dute elikagaiak erkidego edo talde etnikoetan sartzeari eragozteko, oposizioari laguntzen dioten susmoa baitute. Horren ondorioz, landetxeak bonbardatu edo abereak lapurtzen dituzte; edo omisiozko jarrerak hartu, esaterako, agintariek emergentzia deklaratzeari uko eginez; edo laguntza blokeatuz, atxikiz edo



# POBREZIA gutxitzeko

modu selektiboan hornituz. Adibidez, Darfur-en (Sudan), gobernuak porrot egin zuen, gehienbat sedentarioak diren talde etnikoen kontra talde nomadetako miliziek zerabilten indarkeria kontrolatzeko ahaleginean. Horren ondorioz, elikagaien laguntzaren menpe geratu dira 3.4 milioi pertsona. Duela gutxi gertatu da, adibidez, laborantzarako eremu zabalak nahita suntsitzea, desplazatuena esparruetan bizi diren lekualdatutako 1.8 milioi pertsona beren etxeetara itzuli ez daitezten.



Afrikako elikagaien krisia konpontzeko, gatazka armatuak konpondu behar dira lehenik. Eginkizun hori Afrikako gobernuen ardura da, baina baita nazioarteko erkidegoarena ere.

Herralde aberatsek gehiago inplikatu beharko lukete Afrikan bakea bilatzeko. Beste neurri batzuen artean, honako hauek gauzatu beharko lituzkete:

- ✓ Afrikari emandako laguntza areagotzea, baita Afrikan bakea mantentzeko misioei ere.
- ✓ Eskualde horietarako armen horniketa kontrolatzea.
- ✓ Gatazkek mantentzeko erabiltzen diren natur baliabideen inportazioak mugatzea.
- ✓ Konpainia transnasionalek, natur baliabideak legez kontra edo bidegabe ustiatuz, gatazkei laguntzen ez dietela bermatzea.

Jarduera horiek inbertsio erabakigarri baten laguntza izan behar dute pobrezia murrizteko. Gatazka bat dagoenean, laguntza eskuzabal eta iraunkorragoa eman behar da. Horrela, Sierra Leona edo Liberia bezalako herrialdeak berriz indarkeriara itzultzea saihestuko dute.



# Otoitza egiteko



## Maitatzen ikasteko otoitza

Jauna, gose naizenean, emadazu janaria behar duen norbait;  
 Egarrri naizenean, emadazu ura behar duen norbait;  
 Hotz naizenean, emadazu beroa behar duen norbait;  
 Sufritzen dudanean, emadazu kontsolamendua behar duen norbait;  
 Nire gurutzea astuna iruditzen zaidanean, utzidazu besteren gurutzea konpartitzen;  
 Pobretasunean banago, jarri nire ondoan behartsu bat;  
 Astirik ez dudanean, emadazu nire minutuak behar dituen norbait;  
 Umiliatua banaiz, emadazu aukera norbait goraiatzeko;  
 Animorik gabe banago, emadazu norbait animo berriak emateko;  
 Besteek ni ulertzea nahi dudanean, emadazu nire ulermena behar duen norbait;  
 Zain nazaten beharrezko zaidanean, emadazu norbait nik zaintzeko;  
 Nigan pentsatzen dudanean, zuzendu nire arreta beste pertsona batengana;  
 Zure laguntzarekin izan gaitezen duinak, Jauna, gure anai-arrebak zerbitzatzeko;  
 Emaiezu, gure eskuen bitartez, ez soilik eguneroko ogia,  
 baizik eta gure maitasun errukiorra, zurearen irudia dena.



**Madre Teresa de Calcuta**


## Hala ere



Pertsonak irrazionalak dira, ilogikoak eta bere baitara bilduak,  
**HALA ERE, MAITA ITZAZU**  
 Ongia egiten baduzu, motibazio egoistak dituzula leporatuko dizute,  
**HALA ERE, EGIN EZAZU ONGIA**  
 Arrakasta baduzu, lagun faltsu eta egiazko etsaiak irabaziko dituzu,  
**HALA ERE, IZAN EZAZU ARRAKASTA**  
 Egiten duzun ongia bihar ahaztuko da,  
**HALA ERE, EGIN EZAZU ONGIA**  
 Zintzotasunak eta zabaltasunak ahul egiten zaituzte  
**HALA ERE, IZAN ZAITEZ ZINTZO ETA ZABALA**  
 Urte luzeetan eraiki zena gau batean suntsitu daiteke,  
**HALA ERE, ERAIKI EZAZU**  
 Egiazko jendeak laguntza behar du baina eraso zaitzakete egiten baduzu,  
**HALA ERE, LAGUN IEZAIEZU**  
 Emaiozu munduari daukazu onena eta hortzak ostikatuko dizkizute,  
**EMAIOSU MUNDUARI DUZUN ONENA... HALA ERE.**

## Solidaritatearen Otoitza

Zoriontsuak izan bitez Jesusi jarraitzen diotenak samariar onaren bidetik. Bere urratsen atzetik dabiltzanak, bidearen zailtasunak eta ibiliaren nekeak gaindituz. Zoriontsuak ibiltzean bide berriak sortzen dituztenak, beste batzuek jarraitzeko, atseginez, eta Jainko gure Aitaren lanarekin segitzeko. Zoriontsuak, erne eta gertu euren bidea aldatzen dutenak, sufritzen, negar egiten eta gosea pairatzen dutenengan bizirik dirauen Jainkoaren bila ateratzeko.



Zoriontsuak euren bizitza besteen alde ematen dutenak. Gogor lan egiten dutenak justiziaren alde. Erresuma eraikitzen dutenak, leku urrunetatik. Zoriontsuak, anonimoki eta hantusterik gabe, euren bizitza eskaintzen dutenak beste batzuk gehiago eta hobeto bizi daitezen. Zoriontsuak, euren eguneroko sakrifizioarekin, gizarte berri baterako urratsak ematen dituztenak, "merkatu-jaunak" agintzen duen gizarte honetan.

Zoriontsuak pobreen alde lan egiten duten GUZTIOK. Pobreengandik gertu, pobreen ondoan, pobre bihotzez. Zoriontsuak anai-arreba zehatza maitatzen dutenak. Euren egiazko maitasuna, bizitza-ekintzez, konpainia-ekintzez eta benetako entregaz erakusten dutenak. Zoriontsuak irakasten dutenak, besteek ikasten saiatzen direnak, kolore, azala edo diruagatik desberdintasunik egin gabe.

Zoriontsuak lehenbizi anai-arrebarengan pentsatzen duten GUZTIOK eta besteen eta Erresumaren aldeko lanetan euren zoriontasuna, atsegina eta bizitzaren zentzua topatzen dutenak.



## Banaka

Ilunabarrean, gure lagun bat Mexikoko hondartza bakarti batean zebilen. Ibilian-ibilian, han urrunean, beste gizon bat zetorrela ikusi zuen. Hurbildu ahala, konturatu zen bertakoa zela, eta tarteka makurtu, zerbait hartu eta uretara botatzen zuela. Behin eta berriz botatzen zituen gauza horiek ozeanora.

Gehiago hurbildu zenean, gure lagunak ikusi zuen, gizon horrek, mareak hondartzan utzitako itsas izarrak bildu eta, banan-banan, berriz uretara botatzen zituela.

Jakin-minez, gure ibiltaria gizonarengana hurbildu eta esan zion: -. -Arratsalde on, lagun. Neure buruari galdezka nator, zertan ari ote zaren.

-Itsas izarrak ozeanora itzultzen ari naiz. Orain itsasbehera dago, eta itsas izar horiek guztiak utzi ditu hondartzan. Itsasora itzultzen ez baditut, oxigeno faltaz hilko dira.

-Ikusten dut, bai -erantzun zion gure lagunak-, baina hondartza honetan milaka itsas izar egongo dira. Gehiegi dira, besterik ez. Eta seguruenik, gauza bera gertatzen ari da ehunka hondartzatan, kostalde osoan. Ez al zara konturatzen, egiten ari zarenak ez duela benetan garrantzirik?

Bertakoak irri egin zuen, beste itsas izar bat jasotzeko makurtu eta, uretara bota zuen esanez: -Honentzat behintzat bada garrantzitsua!





San Francisco, 12A-3º  
48003 - BILBAO  
[mision-bi@terra.es](mailto:mision-bi@terra.es)